

# BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 4837

*EBAZPENA, 2025eko urriaren 22koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaarena, zeinaren bidez egiten baita Amurrioko (Araba) Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 17. artikularen aldaketa puntualaren eta AC 21 Maskuribai, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI 23 Maskuribai-Larrinbe industria-eremuetako erabileren definizioaren ingurumen-txosten estrategikoa.*

### AURREKARIAK

2025eko uztailaren 4an, Amurrioko Udalak Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari eskatu zion has zedila Amurrioko (Araba) Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 17. artikularen aldaketa puntualaren eta AC 21 Maskuribai, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI 23 Maskuribai-Larrinbe industria-eremuetako erabileren definizioaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua (aurrerantzean, Plana). Eskaerarekin batera, hainbat dokumentu aurkeztu zituen; besteak beste, Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan zehaztutako edukiarekin.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak eragindako Administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko izapidea hasi zuen 2025eko irailaren 4an, eta espedientean jasota dago emaitza.

Era berean, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren webgunean, interesdun orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egokitzat jotzen zituen oharrak egiteko.

Erantzuteko legezko epea amaitu eta espedienteko dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, egiaztatu da ingurumen-organoak irizpen-elementu nahikoak dituela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikularen arabera.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, bai eta horien aldaketak eta berrikuspenak ere, ingurumen-babes handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Plana ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren mende dago, bat datorrelako Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikularen a) atalarekin (aurreko atalean aipatutako planen eta programen aldaketa txikiak) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.2 artikularekin, bat datorrelako II.B eranskinaren 2. atalarekin. (II.A eranskineko planen eta programen aldaketa txikiak, II.G eranskineko aldaketa txikien definizioaren arabera).

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura 75. artikuluan dago araututa, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.C eranskinen ezarritako irizpideen arabera.

Planaren dokumentazio teknikoa aztertu ostean, eta ikusirik ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena dela eta indarrean dagoen araudian ezarritako alderdiak betetzen dituela, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren arabera. Txosten honetan ezartzen da Planak ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzakeen eta, beraz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen; edota, horrela ez bada, zer baldintzatan garatu behar den Plana, ingurumena behar bezala babesteko.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Amurrioko (Araba) Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 17. artikulua aldatzea puntualaren eta AC 21 Maskuribai, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI 23 Maskuribai-Larrinbe industria-eremuetako erabileren definizioaren ingurumen-txosten estrategikoa egitea, jarraian adierazten diren baldintzetan:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Amurrioko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean, HAPO) 2023ko urtarrilaren 30ean onartu zen (ALHAO, 12. zk.). Plan horretan, hiri-lurzoru finkatuaren barruan, AC22.1 Aldaiturriaga Erdia eremu finkatua eta AC21 Maskuribai eremu finkatua jasotzen dira, eta hiri-lurzoru finkatugabearen, AI23 Maskuribai-Larrinbe jarduketa integratua, guztiak ere industrial gisa kalifikatuta.

AC21 Maskuribai:

Eremua hirigunearen hegoaldean dago, eta partzialki garatuta dago. Guztira 129.920 m<sup>2</sup>-ko azalera du; horietatik 111.990 m<sup>2</sup> B industria-gune globalari dagozkio, 350 m<sup>2</sup> bizikleta-sarearen sistema orokorreko E2.4 gune globalari (Lezama eta Larrinbe lotzen dituen bidegorria), 6.840 m<sup>2</sup> trenbide-sarearen sistema orokorreko E3 gune globalari (Renferen linea), F1.6 gune globalari (hiri-espazio libreen sistema orokorra) (Nerbioiko parke lineala) eta 1.825 m<sup>2</sup> F1.9 gune globalari (hiri-espazio libreen sistema orokorra) (Aldaiturriaga errekaaren ibai-parkea).

B Industria-gune globalaren erabilera-araubideak, egiturazko antolamenduaren mailan, I1 manufaktura-industria (1., 2. eta 3. kategoriak) ezartzen du gune horren berezko erabilera gisa. Erabilera bateragarri gisa ezartzen dira, besteak beste, I2 3. kategoria, I3, T1 eta T2 Plana indarrean jartzen den unean dauden jardueretan, eta T3 1., 2. eta 3. kategoriak.

AC22.1 Aldaiturriaga Erdia:

39.810 m<sup>2</sup>-ko azalera du guztira; horietatik 38.830 m<sup>2</sup> 1. gunea -B Industria Gune Globala izenekoari dagozkio, eta 980 m<sup>2</sup> 2. eremua - E3 Gune Globala izenekoari. Trenbide Sarearen Sistema Orokorra». 1 gunea -B Industria-gune Globala, aldi berean, titulartasun publikoko berdegune eta bide-gunez osatutako lurzati batek eta titulartasun pribatuko hiruk osatzen dute.

Eremuaren indarreko hirigintza-ordenantzaren arabera, 1 Gunea- B Industria-gune Global erabilera-araubideak, egiturazko antolamenduaren mailan, 1. gunea horren erabilera bereizgarritzat ezartzen du I1 Manufaktura-industria», eta erabilera bateragarri gisa, besteak beste, I2 Biltegia.

Aldaketa puntualaren helburua AC21 Maskuribai, AC22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI23 Maskuribai-Larrinbeko industria-lurzatiei aplikatu beharreko erabilera-araubidea argitzea da.

– AC21 Maskuribai: b industria-lurzatiko azpieremuaren erabilera bateragarriak zabaltzen dira, honako erabilera hauek hartu ahal izateko: biltegia eta handizkako merkataritza, merkataritza, ostalaritza, langela eta bulego profesionalak, ekipamendu-erabilerak eta manufaktura-erabilera industrialak, 4 kategoriakoak, tamaina handiko jarduerak, beste erabilera batzuekin bateraezinak direnak, eta 5 Industria-eremu espezifikoetan ezarri beharreko jarduerak. Aldaketa honen bidez, kategoria horietan sar daitezkeen jardueren presentzia erregularizatu nahi da, eta, beraz, ez da jarduera berririk gehituko ezta horrelako instalazio berririk baimenduko.

– AC22.1 Aldaiturriaga Erdia: aldaketaren xedea eremuan aplikatu beharreko erabilera-araubidea argitzea da, manufaktura-industriako eta biltegiko erabilerak bereizi ahal izateko. Azken hori da lurzati horietan azken 20 urtetan nagusi izan den modalitatea. Aldaketaren atal gisa erantsi da, halaber, 4. kategoria, «Beste erabilera batzuekin bateraezinak diren tamaina handiko jarduerak», I1 Manufaktura-industria erabileran, beste erabilera batzuekin bateraezinak diren jarduera handiagoak hartzeko.

– AI23 Maskuribai-Larrinbe: aldaketaren helburua da manufaktura-erabilera industrial eta biltegi modalitateak bata zein bestea eman ahal izatea Maskuribai industrialdeko lurzatiaren, industria-eremu horren erabilerekin eta jarduerekin bat etortzeko. Horretarako, Planak b.1) Maskuribai industria-lurzatiaren erabilera bereizgarriak aldatzen ditu, eta I1 Manufaktura-industria kategoria sartzen du. Erabilera bateragarriei beste kategoria hauek ere gehitu zaizkie: I2 Biltegia, I3 Handizkako merkataritza eta ekipamendua.

Aztertutako alternatibak:

Ingurumen-dokumentu estrategikoak antolamendu-alternatiba jasotzen bat du, 0 alternatibaz edo «ez esku hartzekoaz» gain. 0 alternatiba baztertu egin da, sustatzaileen beharretara eta interesetara ez egokitzeagatik eta ingurumen-hobekuntza nabarmenik ez ekartzeagatik.

1. alternatibak AC21 Maskuribai, AC22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI23 Maskuribai-Larrinbeko industria-lurzatiaren ordenantzak aldatzen ditu, lehen azaldu den bezala.

1. alternatiba hautatu da, udalerraren garapen jasangarriaren printzipioa betetzeko, lurraldearen hirigintza-antolamenduan lurzoruaren gainean ezarritako baldintzak kontuan hartuta. Izan ere, lurzoru hori ondasun urria eta mugatua da, eta kontserbatu eta zaindu egin behar da, industria-pabiloi horien aldakortasuna hobetuz.

B) Proposatutako Planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.3 artikularekin bat etorriz, lege horren II.C eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira, Planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez erabakitzeko.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki alderdi hauek kontuan hartuta:

a) Planak zer neurritan ezartzen duen proiektuetarako esparru bat: kontuan hartuta proposatutako garapenaren garrantzia eta etorkizunean Planaren esparruan gauzatuko diren proiektuen izaera, ez dago zertan Plana ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri, ez baitu berezitasunik.

b) Planak zer neurritan eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, hierarkizatuta daudenak barne: Planak Amurrión indarrean dagoen HAPO aldatzen du, eta AC21 Maskuribai, AC22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI23 Maskuribai-Larrinbe industria-lurzatietan aplikatu beharreko erabilera-araubidea argitzen du. Planak, bere ezaugarriak kontuan hartuta, ez du ingurumen-eragin nabarmenik izango beste plan edo programa batzuetan. Ez da aurkitu bateraezintasunik hierarkian gorago dagoen plangintzarekiko.

c) Plana egokia den ingurumenaren arloan kontuan hartu beharreko alderdiak integratzeko, bereziki garapen jasangarria sustatzeari begira: kontuan hartzen da Plana egokia dela garapen jasangarria sustatzen duten ingurumen-alderdiak integratzeko, eta aukera ematen duela energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzera bideratutako neurriak sartzeko.

d) Planarekin lotutako ingurumen-arazo adierazgarriak: ez da antzeman Plana gauzatzeak ingurumenean arazo adierazgarriak sortuko duenik, –betiere eraginpeko eremuan egin beharreko jarduketak eta ekintzak indarrean dagoen araudia betez egiten badira–, besteak beste, arlo haue-tan: zarata, lurzoruak, urak, hondakinak eta isurketak, segurtasuna, osasuna eta ingurumena.

e) Era berean, Plana egokitzen jotzen da Europar Batasuneko edo Espainiako ingurumen-arloko legedia txertatzeko.

Kontuan hartuta kokapena, ukitutako eremuaren ingurumen-ezaugarriak eta Plana garatuz etorkizunean gauzatuko diren proiektuen garrantzia, uste da Planak ez duela berezitasunik eta ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

## 2.– Ondorioen eta eragina jasan dezakeen eremuaren ezaugarriak:

Litologikoki, Maskuribai eremua eta Larrinbeko industrialdean dagoen eremua porositete bidezko iragazkortasun ertaineko alubioi-depositu eta alubio-kolubialez osatuta daude. Aldaiturriaga Erdia eremua, berriz, tuparri-kareharrien edo kareharri nodulosoen, tuparri edo limoliten edota limolita ikaztuen alternantziak osatzen du, pitzadura bidezko iragazkortasun txikikoak.

Planaren xede diren lurzoruak ez daude Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak antolatuta, Larrinben dagoen Maskuribai-Larrinbe 23 HJEaren zatiaren ekialdeko muga izan ezik, Basoa-Mendi barbana eta Nekazaritza eta Abeltzaintza gisa kategorizatutako lurzoruei baitagokie: Balio estrategiko handikoak.

Eremua «Ibaizabalen unitate hidrologikoan (UH)» dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan (ES017). Zehazki, Nerbioi I (ES052MAR002690) ur-masaren isurtze-arroan dago, erkidego arteko arroen eremuan. AC 21 Maskuribai eremua Nerbioi ibaiak mugatzen du mendebaldean, eta hegoaldean Nerbioi ibaira isurtzen den 5756 izenik gabeko erreka igarotzen da. AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eremuari dagokionez, hurbilen dagoen ibaia Nerbioi ibaia da, eremutik ekialdera 300 metro baino gehiagora dagoena. Maskuribai-Larrinbe HJEa Zankoeta ibaiak mugatzen du Larrinben dagoen zatian; Maskuribaian dagoen zatia, berriz, Larruzabal ibilgua da hurbilen dagoena, 130 metro ingurura iparraldean.

Ikuspegi hidrogeologikotik, hiru eremuak Mena-Orduña (ES017MSBT013-006) lurpeko ur-masaren gainean daude. AC 21 Maskuribai eremua, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdiaren ekialdeko zatia eta AIU 23 Maskuribai-Larrinbeko Maskuribain dagoen zatia bat datoz Mena-Urduña Kuarternarioko sektorearekin. AC 21 Maskuribai. AC 21 Maskuribai eremua eta AIU 23 Maskuribai-Larrinbe EAEko interes hidrogeologikoko eremuetako batean dago, eta akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun txikia du. AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia oso kalteberatasun-maila baxua edo atzemateko modukoa ez den kalteberatasuna erakusten du akuiferoen kutsadurari dagokionez.

Landarediaren ikuspegitik, eta EUNIS (geoEuskadi) habitaten kartografiaren arabera, eremu gehienak eraikuntza eta habitat artifizialez osatuta daude. AC 21 Maskuribain *Populus sp.* espeziearen landaketa bat dago hegoaldean, eta *Quercus robur* espeziea nagusi den baso azidofilo bat ekialdean. AIU 23 Maskuribai-Larrinbe eremuko Larrinbe aldean, mendebaldean *Quercus robur* nagusi den baso azidofilo batekin egiten du muga.

Batasunaren Intereseko Habitategi (BIH) dagokienez, bai AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia, bai AIU 23 Maskuribai-Larrinbe eremuko Larrinbeko zatia, BIH 6510 Altitude baxuko sega-belardi pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) gisa kartografiatutako eremuen mugakide dira, eta eremu horren azalera txikiak hartzen dituzte eremuen mugetan. Geoeuskadiren kartografiaren arabera, bertan ez dago flora-espezie babesturik.

Ez Planaren eremuan, ezta haren ingurune hurbilean ere, ez da identifikatu fauna mehatxatua edo Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko planen xede den espaziorik. Eremuan dagoen fauna bat etorriko da eremu antropizatuei lotutako espezieekin.

Eremuan ez da ingurumen-balio garrantzitsurik detektatu. Ez du ukitzen Natura 2000 sareko naturagune babesturik, ezta inbentarioan sartutako beste gune babestu edo natura-intereskorik ere. Era berean, ez dator bat EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan sartuta dauden interes geologikoko puntuekin edo lekuekin, ezta EAEko korridore ekologikoen sareko elementuekin ere. LAGetako azpiegitura berdeari dagokionez, Nerbioi ibaiak, AC 21 Maskuribairen mugakide denak, bilbe urdina irudikatzen du.

Eremua Amurrioko ikuspen-arroari dagokio, eta eremu antropogenikoan dagoen industria-paisaia da. Eremua ez dago sartuta EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan (Eusko Jauriaritza, 2005).

Planaren xede diren eremuak ez datoz bat eraikitako kultura-ondarearen edota ondare arkeologikoen elementu babestuekin.

Egoera akustikoari dagokionez, ingurumen-dokumentuak jasotzen du aldaketaren xede diren industrialdeen barruan soinu-mailek ez dutela 60-65 dB gainditzen.

AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AIU 23 Maskuribai-Larrinbe eremuek ez dute bat egiten Euskadiko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioaren kokalekuekin. Hala ere, AC21 Maskuribaik inbentario horretan sartutako zenbait lurzati hartzen ditu barne, Geoiker 01002-00100, 01002-00095, 01002-00019, 01002-00123, 01002-00114 eta 01002-00127 kodeekin.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, AC 21 Maskuribairi dagokionez, eremuaren zati bat 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko orbanen eraginpean dago; hegoaldeko muga, baso-sutearen arrisku oso handiko eremu bat du, eta salgai arriskutsuen trenbideen bidezko garraioak eragindako arrisku handiko 0-600 metroko eragin-banden barruan dago (Madril-Irun linea). Bestalde, ez du arrisku handirik sismikotasunaren, Seveso Zuzentarauaren mendeko enpresetatik gertu egotearen, higaduraren edo salgai arriskutsuak errepidez garraiatzearen ondorioz.

Bestalde, AC 22.1 Aldaiturriaga Centro zentroak ez du uholde-arriskuaren, sismikotasunaren, baso-sutearen edo salgai arriskutsuak errepidez garraiatzearen ondoriozko arrisku handirik. Hala ere, eremua salgai arriskutsuak trenbidez garraiatzeagatik (Madril-Irun linea) 0 eta 600 m bitarteko arrisku altuko afekzio-banden barruan dago, eta Tubacex TTI Amurrio enpresaren hodei toxikoaren afekzio-bandaren barruan, istripua gertatuz gero. RUSLE (Revised Universal Soil Loss Equation) ereduaren arabera, eremuak higadura-prozesu muturrekoak eta oso larriak ditu.

AIU 23 Maskuribai-Larrinbek ez du arrisku handirik uholde-arriskuagatik, sismikotasunagatik, baso-suteengatik, higaduragatik, Seveso Zuzentarauaren mende dauden enpresetatik hurbil egoteagatik edo salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeagatik. Eremua, neurri batean, salgai arriskutsuak trenbidez garraiatzeagatik 0-200 metroko arriskuaren eraginpean dagoen zerrendaren barruan dago (Madril-Irun linea). Maskuribain dagoen eremuaren zatia 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuan dago.

C) Ebazpen honetan honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, Planak ingurumenean ondorio kaltegarri esanguratsuak izan ez ditzan eta Amurrioko (Araba) Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 17. artikulua aldaketa puntualari eta AC 21 Maskuribai, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI 23 Maskuribai-Larrinbe industria-eremuetako erabileren definizioari ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharrik ez izateko, betiere bertan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzen badira.

Neurri babesle eta zuzentzaileak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, ingurumen-txosten estrategikoak formulatzen duen ebazpenean adierazitakoarekin bat, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, ingurumen-agiri estrategikoan eta planean bertan jasotakoarekin bat etorritz.

Beraz, planak jaso beharko dituen zehaztapenen artean, honako hauek daude:

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei buruzko neurriak:

– AC21 Maskuribai eremua bat dator 01002-00100, 01002-00095, 01002-00019, 01002-00123, 01002-00114 y 01002-00127 Geoiker kodea duten lurzatiekin, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta daudenak. Hori horrela, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) xedatutakoa bete beharko da.

– Aipatutako lursailetakoren batean Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada, lurzoriaren kalitatearen adierazpena izapidetu beharko da.

– Hondeaketa-lana egin behar bada eta lurzati horietan ateratako materialak 500 m<sup>3</sup>-ko bolumenagaintzen bada, nahitaezkoa izango da gaika hondeatzeko plan bat aurkeztea, lurzoriaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakunde egiaztatu batek egina. Planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean deskribaturiko edukia jaso beharko du eta ingurumen-organoak onartu beharko du lanei ekin aurretik.

– Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, obrak egin bitartean lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten beste kokagune batzuk atzeman ez gero, edo lurzoria kutsatzen duten substantziak daudela adierazten duten zantzu oinarridunak egonez gero, horren berri eman beharko zaie, berehala, Amurrioko Udalarari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek zehazteko zer neurri hartu behar diren eta zein pertsona fisikok edo juridikok bete beharko dituen neurriak, Lurzoria Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua erekin bat.

Uholde-arriskuarekin lotutako neurriak:

– Organo eskudunak prozedura aplikagarrien esparruan ezarritako baldintzak alde batera utzi gabe, Planaren garapenerako proiektuek bat etorri beharko dute Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudian eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko

Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko E.2 apartatuko uholdeen aurkako babesari buruzko araudi espezifikoan ezarritakoarekin.

Ingurumen-integrazioari buruzko neurriak:

- Planak esplizituki jasoko du Planetik eratorritako proiektuek Zaharberitze Proiektu bat izango dutela lotuta, eta proiektu horrek barne hartuko dituela horiek gauzatzearen eraginpean egon daitezkeen arlo guztiak, eta bertan garatuko direla jarduketak, gauzatze behar adinako xehetasun-mailarekin, aurrekontua barne.
- Espazio libreak landareztatzean, aintzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak argitaratutako Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatze eskuliburua. Espazio libreetako landareztatze-lanak ahalik eta lasterren egingo dira; horrela, higadura-prozesuak ekidingo dira, bai eta solidoak drainatze-sarera arrastatzea eta espezie aloktono inbaditzaileen kolonizazioa ere. Jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira, espezie autoktonoak erabiliko dira espezie inbaditzaileak sartzeko arriskua txikiagoa izan dadin. Lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, Fallopia japonica, Robinia pseudoacacia eta Cortaderia selloana edo beste. Lehengoratzeko-lanetan erabiliko den landare-lurra flora inbaditzailearen propagulurik ez duela bermatuko da.

Eremuko kalitate akustikoa babesteko neurriak:

- Aurreikusitako erabileretarako, eremuaren kalitate akustikoari dagokionez, kontuan hartuko da, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikuluekin, etorkizunean ezingo dela hirigintza-garapenik gauzatu kanpoaldean kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez diren gunetan, hargatik eragotzi gabe dekretu horren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.
- Nolanahi ere, eraikinaren barnealdean kalitate akustikoko helburuak betetzera bideratutako neurriak hartuko dira, eraikinaren erabileren eta motaren arabera.

Lurzoruaren funtzioak optimizatzeko neurriak:

- Lurzoruaren iragazkortasuna errazten duten eta drainatze jasangarriko teknikak erabiliz iragazketa-ahalmena handitzen duten irtenbideak erabiltzea.
- Naturan oinarritutako soluzioen bidez birnaturalizatzerara bideratutako espazio publikoak diseinatzea.
- Espazioen antolamenduan irizpide bioklimatikoak kontuan hartzea.
- Honako hauekin lotuta dauden ekonomia zirkularreko neurriak txertatzea: obran landare-lurra kudeatzea eta berrerabiltzea, materialen kontsumoaren inpaktua minimizatzea, etab.

Soberakinen kudeaketari buruzko neurriak:

- Plana garatzeko proiektuek lehentasuna emango diote lurren mugimendua orekatua izateari garatutako eremuan. Hori posible ez bada, lehentasuna emango zaio lur- eta arroka-soberakinak mailegu-premian dagoen hurbileko obra batean balorizatzeari. Balorizatzea ezinezkoa bada, soberakinak metatzeko egon daitezkeen kokalekuak identifikatuko dira, eta soberakinak eramateko dauden alternatibak ingurumen-irizpideekin aztertuko dira, ingurumen-inpaktu txikiena duen lekua hautatzeko. Azken kasu horretan, soberakinen biltegi baimendu bat izango da beti, eta arau hauetan xedatutakoa betez egingo da haien kudeaketa: 646/2020 Errege

Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzeko jarduera arautzen duena; eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

Beste prebentzio-neurri eta neurri zuzentzaile batzuk:

Aurreko neurriak ezertan eragotzi gabe, garapen-proiektuak gauzatzean aplikatu beharreko neurriak lotuta egongo dira obretako, lurra eta soberakinak kudeatzeko, hondakinak sortu eta kudeatzeko, hondeatutako lurzorua kontrolatzeko, eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babesteko jardunbide egokien eskuliburuarekin. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko dira, eta Planak azkenean hartzen dituen zehaztapenei erantsiko zaizkie:

- Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburuak. Gai hauei lotutako alderdiak bilduko ditu gutxienez: lanaldiak, makineria, uretara egindako isurketak saihestea, ahalik eta hauts eta zarata gutxi sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa duten jarduerak minimizatzea, hondakinak kudeatzea, eta abar.
- Obrak, bai eta lurzoruak erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxienezko eremuan gauzatu behar dira. Kontratatuen instalazio-eremuak (barnean direla makinak gordetzeko guneak, obra-txabolak, obrako materialak, landare-lurra eta hondakinak aldi batean pilatzeko guneak) ingurumenari ahalik eta gutxi eragiteko irizpideei jarraituz proiektatu behar dira.
- Hondakinak sortu eta kudeatzea: obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorritakoak barne, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak araututakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatu behar dira.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, prebentzioa sustatu behar da hondakinak sortzean, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkeran kudeatu daitezela, hau da: prebentzioa, berreraileko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.

Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da aldeztatik behar bezala justifikatzea ez dela bideragarria haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereizita izango dira, duten tipologia dela eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasita, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan. Hondakin arriskutsuak dituzten edukiontzien edo ontzien Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautzeko eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, isurita edo lurrunduta edukirik gal ez dezaten. Edukiontzi edo ontzi horiek argi etiketatu beharko dira, irakurtzeko eta ezin ezabatuzko moduan, eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak bertan behin-behinean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak, eta abar. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Halaber, obran zehar, eta lanek irauten duten bitartean, elementu estankokoak jarriko dira (bidoiak eta abar) sortutako hondakinak biltzeko. Hondakin horiek motaren arabera bereizi beharko dira, aipatutako garbigunean aldi baterako biltegitatu baino lehen.

Espresuki debekatuta dago sortutako hondakin-tipologia desberdinak elkarren artean edota beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea. Halako hondakinak jatorritik bereiziko dira, eta bilketa- eta biltegitratze-bitarteko egokiak prestatuko dira nahasketa horiek ekiditeko.

Olio erabiliak estalpean utziko dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, behar bezala etiketatutako depositu estankoetan, zolata iragazgaitz baten gainean, eta kubo txikietan edo isuriei eta ihesei eusteko sistemen barruan.

Aplikatzekoa den araudia betetzen laguntzeko, lanetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da langileek sistema horiek behar bezala erabiltzea. Bereziki, ez da inola ere kontrolik gabeko efluenterik sortuko erregaiak eta produktuak biltegitratzetik, makineria mantentzeko lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Industrian erabilitako olioek kudeaketa arautzen duen 2006ko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatuko dira olio erabiliak.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak.

– Lurzoruaren eta lurpeko uren babesa: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira obra-faserako, istripuzko isuriek eragindako erasanak saihesteko, bereziki makinen mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriekin kutsatutako lurzorua kendu eta kudeatzea eta abar). Ustekabeko isurketarik gertatuz gero, lurzoru kutsatua eta material xurgatzailea berehala jasoko dira, eta hondakin arriskutsu gisa biltegitratu eta kudeatuko dira.

Bilketa-eremuak, instalazio lagungarriak eta makineria-parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira. Makinen mantentze-lanik ez da egingo iragazgaiztu gabeko eremuetan, eta, nolahi ere, hondakinak (bereziki, olio erabiliak) biltzeko sistema izango duen plataforma iragazgaiztu baten gainean egingo dira obran erabiltzen den makineriari erregaia jartzeko, lubrifikatzaileak aldatzeko eta bestelako lanak, urak kutsatu ez daitezen.

– Obretako zarata: obra-fasean erabilitako makineriak bete egin behar ditu aire zabalean erabiltzen diren makinen soinu-emisioen inguruan indarrean dagoen legerian ezarritako aginduak, Zaratar buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera (zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokien errege-dekretua), eta, bereziki, hala badagokio, 2002ko otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakoaren arabera (aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuen ondoriozko soinu-emisioak arautzen dituen errege-dekretua –2006ko apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua–).

Lanek sei hilabete baino gehiago irauten badute, inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat egin beharko da, behar diren zuzenketa-neurriak zehazteko, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35bis artikulua arabera.

Obrek irauten duten bitartean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki hondeaketetan, eraispenetan, zamalanetan eta garraio-lanetan, bai eta erabilitako makineriaren mantentze-lan orokorrak egitean eta zaratak eta bibrazioak sorburuan murriztean ere.

Eguneko lan-ordutegian egingo dira lanak.

- Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailari, hark erabakiko du eta zer neurri hartu.
- Kamioiek obrara sartzeko eta handik irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, lehenetasunez, erratz-makina mekanikoak erabiliko dira, solido esekiak dituzten jariatze-urak sortzea saihesteko.
- Espezie inbaditzaileen kontrola: obrak hasi aurretik, jarduketa-eremuaren prospekzio bat egingo da, bertan dauden flora aloktono inbaditzailearen aleak aurkitzeko eta horiek desagerarazteko erabiliko den protokoloa zehazteko, eta neurri egokiak ezarriko dira eremuan eta ingurunean ez hedatzeko.
- Klima-aldaketa: Garapen proiektuetan klima-aldaketaren ikuspegia txertatzea gomendatzen da, antolamendu-irizpideen eta klima-aldaketaren arteko lotura indartuz. Halaber, gomendatzen da udal-mailan klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko analisirako oinarri gisa honako dokumentu hauek kontuan hartzea: «Euskadiko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa» eta «Euskadiko klima aldaketaren egoeretan muturreko prezipitazio gertaerei lotutako euri- uholdea». Azterketa horretan oinarrituta, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko neurri egokiak ezarriko dira. Bestalde, itsas mailaren igoeraren eta kostaldeko arriskuaren igoeraren balioei dagokionez, eskura dagoen ezagutza eguneratuena eta erregionalizatuena erabiltzea gomendatzen da.
- Kanpoko argiztapenari dagokionez, energia-efizientzia maximizatzeraz eta argi-kutsadura minimizatzeraz jo beharko da, azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuarekin bat etorriz, zeinaren bidez kanpoko argiztapeneko instalazioen energia-efizientziari buruzko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen baitira, EA-01etik EA-07ra.
- Eraikingintza jasangarria: eraikingintza eta eraikuntza jasangarriagoak izateko behar diren ezaugarriak dagokionez, eraikuntza jasangarriko gidetan jasotako ingurumenaren arloko neurriak eta jardunbide egokiak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpen eta -efizientzia eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko. Neurri horiek, gutxienez, alderdi hauetan eragin beharko dute:
  - i) Materialak. Lehengai ez-berriztagarri gutxiago kontsumitzea.
  - ii) Energia. Energia gutxiago kontsumitzea edota energia gutxiago sortzea iturri ez-berriztagarrien bidez.
  - iii) Edateko ura. Edateko ur gutxiago kontsumitzea.
  - iv) Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
  - v) Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisio gutxiago sortzea.
  - vi) Barne-kalitatea. Barne-airearen kalitatea, konforta eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.– Ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta betiere ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez da aurreikusten Amurrioko (Araba) Hiri

Antolamenduko Plan Orokorraren 17. artikularen aldaketa puntualak eta AC 21 Maskuribai, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI 23 Maskuribai-Larrinbe industria-eremuetako erabileren definizioak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik eragingo duenik, eta, beraz, ez da ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia Amurrioko Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Bosgarrena.– Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen-txosten estrategiko honek indarra galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, Amurrioko (Araba) Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 17. artikularen aldaketa puntuala eta AC 21 Maskuribai, AC 22.1 Aldaiturriaga Erdia eta AI 23 Maskuribai-Larrinbe industria-eremuetako erabileren definizioa onartzen ez badira, gehienez ere lau urteko epean. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazioa egiteko prozedura, salbu eta ingurumen-organoari haren indarraldia luzatzeko eskatzen bazaio. Hori gertatuz gero, ingurumen-organoak, hala badagokio, ingurumen-txosten estrategikoaren beste indarraldi bat xedatuko du, erregelamenduz zehaztutako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 22a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.